

beste izaki baten bearra,
ez galda, ez billatu,
zalantza oro baztertu.
Ajolik gabe (baña ixilean) dei egizu :
Eguzki berritan gaudez !

Egunen batean (edozein egun, edozein ordu)
bizitz berriren batera bazera esnatu,
biarko munduaren deia aditu ondoren :
eta ordurarteko nagitasunak izugarri
naskatzen badizu
eta zure mundu illunetik paisaje idekira bultzatzen,
Egun berean, ordu berean,
leenari uko egizu.
Nare eta seguru munduko bide aundiaren zear
oraina ta geroari bekokia emaiozu !

EZAITEZ ITZARTU !

Otsalar

Ixil, soilki ta paketsu
ene maitearen loa.
Errekatxoak marmarra,
ura jausika badoa.
Korrontak, ezin gelditu.

Zelaiaren apaingarri,
lorak bekaizti dituala,
Morfeo'ren besoetan da.
Ene maite orren ametsa,
baneki zelan igarri...

Barnean dedan kezkek
esaten dida : Ez esna.
Bizi-moduaren egia
amets utsa baita ;
gañerako guziak : uskeriak.

Jarrai zazu etzanda,
ames txanbeliñori lotuta ;
itzartutzean orbana
lortu zezakete maitea.
Betiko loa, obe baita.